

Artea - Udazkena Erdi Aroan, Flandriaren distira (XIV-XVI. mendeak)

Ikas Vital

2026ko urriaren 2tik abenduaren 18ra

Ostirala 10:00-11:30

45€



Fundación Vital Fundazioak prestakuntza eta kultur ikastaroen sorta zabala eskaintzen du. Ikastaro horiek aurrez aurre nahiz online egiten dira, eta gai desberdinetan adituak diren irakasleek ematen dituzte.

Informazioa

Edukia

1. gaia: Sarrera historikoa

Borgoinako mezenasgoa eta nazioarteko gotikoa (XIV. mendea).

2. gaia: “Flandriako primitiboak”. Olio-pinturaren teknika

Olio-pinturaren teknika eta haren erabilera. Jan van Eyck eta Robert Campin bezalako

artisten lanak.

3. gaia: XV. mendea Flandrian

Flandriako eskolaren arrakasta eta Europako gorteetan izan zuen eragina. Rogier van der Weyden edo Petrus Christus bezalako artisten lanak.

4. gaia: Gotiko flamigeroa eta arkitektura zibila. Hirien boterea

Katedralak eta, bereziki, arkitektura zibila (udaletxeak eta merkataritza-lonjak), burgesiaren harrotasunaren isla gisa, elizaren boterearen aurrean.

5. gaia: Tapizgintza

Tournai eta Bruselako tapizgintzaren garapena, garaiko arterik garestienetako bat bezala.

6. gaia: Jheronimus Bosch (El Bosco)

7. gaia: Emakume artistak Flandriako tailerretan

Emakumeek Flandriako gremio artistikoetan izan zuten papera. Iturriak urriak izan arren, XVI. mendeak beren tailerrak kudeatu zituzten emakumezko artista garrantzitsuen izenak utzi zizkigun: Levina Teerlinc eta Catharina van Hemessen.

8. gaia: Egurrezko eskultura: Anberesko eta Mecheleneko tailerrak

Jan Borman eskultorearen obrari buruzko edukia ere landuko da.

9. gaia: Erromanismoa eta Italiarekiko elkarrizketa (XVI. mendea)

Flandriako artisten Italiarako bidaiak. Iparraldeko errealismoaren eta paisaiaren fusioa Italiako Errenazimentuko perspektibarekin eta monumentaltasunarekin.

10. gaia: Pieter Brueghel Zaharra. Flandriako identitatearen gailurra

Paisaia unibertsala, urteko urtaroak eta nekazarien eguneroko bizitza pintura filosofiko handi gisa. Humanismoa eta ezkutuko kritika soziala.

Ordutegia, iraupena eta lekua

Kordoi etxea (Aiztogile 24) ostirala 10:00etatik 11:30era. 2026ko urriaren 2tik abenduaren 18ra.

Prezioa

45€

Ikastaroaren garapena

Ricardo Garay Osmak emandako ikastaroa; Artearen Historian lizentziatua UPV/EHUn.

Online prestakuntza Google Meet plataformaren bidez emango da (izena eman duten pertsonak mezu elektronikoa jasoko dute esteka batekin, ikastaroaren saioaren egunean eta orduan konektatu ahal izateko). Ikastaro honetan parte hartzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak hauek dira: interneterako sarbidea duen gailu bat izatea (mugikorra, tableta edo ordenagailua), kamera eta mikrofonoa.

Izen-emateak

- **Zozketarako izen-emateak:** uztailaren 15eko 08:30etik irailaren 3ko 23:59ra arte.
- **Plazen zozketa:** 2026ko irailaren 7an.
- **Esleitutako pertsonen argitalpena:** 2026ko irailaren 8an.
- **Esleitutako plazen ordainketa:** 2026ko irailaren 8tik 13ra.

Ikastaro batean baino gehiagotan izena eman nahi baduzu, izen-emate independente bat egin beharko duzu ikastaro bakoitzeko.

Izen-emateak bi modutan egin daitezke:

- **AURREZ AURRE**, gure egoitzan, Kordoi Etxean (Aiztogile kalea, 24), uztailaren 15etik 31ra eta abuztuaren 26tik irailaren 3ra.
- **ONLINE**, uztailaren 15etik irailaren 3ra.

Izena eman hurrengo inprimakiaren bitartez: